

4.1 Udalaren ondare erantzukizunaren ondoriozko kalteen erreklamazioa

Espediente kodea: UOEE

Zer da? Zertarako da?

Udalari zuzendutako kalte-ordainen erreklamazioa, partikularren ondasun edo eskubideetan eragindako kalteen ondoriozkoa, betiere kalte horiek zerbitzu publikoen funtzionamendu arruntaren edo apartekoaren ondoriozkoak badira. Kalte-ordaina jasotzeko eskubidetik kanpo geratzen dira halabeharrezko kasuak edo partikularrek zuzenbidearen arabera jasan beharreko kalteak.


Nork eska dezake?

Udal Zerbitzu Publikoaren funtzionamenduaren ondorioz bere ondasun eta eskubideetan kalte edo lesio bat jasan duten pertsona fisiko edo juridikoak. Baita haren ordezkariak ere.

Aurkeztu beharreko agiriak

- [Eskaera-orri normalizatua](#) **betea zehaztasunez.**
- Lekukorik baldin badago, haiek gertatutakoari buruz egindako [zinpeko aitortpena](#).
- Kaltetutako ondasunak konpontzeagatik edo berrezartzeagatik ordaindu beharrekoaren aurrekontua edota mediku-txostena, kalte pertsonalak erreklamatzeko badira.

Nola eskatzen da?

 **Aurrez aurre:** hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan). Astelehen, asteazken eta ostiralean : **08:00 – 14:00.**

Astearte eta ostegunetan **08:00-18:30**

Uztaila eta Abuztuan astelehenetik ostiralera **08:00-14:00**

① **Telefonoa:** ezin da telefonoz eskatu. Dena den informazio gehiago eska dezakezu, edo eskaera eta informazio-orria etxera bidaliko dizkizugu, **943 337000** telefonora deituz.

🖨️ **Internet:** udalaren www.hernani.eus web orriko egoitza elektronikoa

✉️ **Posta arrunta:** ezin da postaz eskatu

Zenbat kostatzen da?

Doan

Prozeduraren epea

Aurreikusitako epea: Urtebeteko epea, gertaeraren unetik edo kaltearen eragina azaltzen denetik. Kalte fisiko edo psikikoen kasuan, epea sendatzen denetik edo ondorioen irismena zehazten denetik hasiko da kontatzen.

Legezko gehieneko epea: 6 hilabete.

Administrazioaren isiltasunaren ondorioa: Aurkakoa.

Prozeduraren tramiteak

- Erreklamazioaren balorazioa. Alkatetzaren ebazpena, erreklamazioa tramitera onartuz edo tramitera ez onartuz.
- Kaltea eragin duen zerbitzuko arduradun teknikoaren txostena, gertatutakoa azaltzeko.
- Ofizios edo interesdunak horrela eskatuta frogaldi bat irekiko litzateke.
- Entzunaldi-izapidea: **10 eguneko** epea alegazioak edo agiriak aurkezteko.
- Instrukturearen ebazpen-proposamena.
- Alkatetzaren ebazpena, eskaera onesteko ala ezestezko, erreklamazioan eskatzen den zenbatekoa **18.000,00 €** baino txikiagoa bada.
- **18.000,00 €** baino handiagoa bada erreklamatzeko den zenbatekoa, Aholku Batzorde Juridikoaren nahitaezko irizpena, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.k) artikuluan xedatutakoari jarraiki.
- Behin betiko ebazpena.

Tramitatzeke arduraren duen udal saila

Kontratazio eta Ondare Saila

Informazio gehiago: **943 337024** edo ondarea@hernani.eus

Araudi aplikagarria

- *Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea; 139-146 bitarteko artikulua.*
- *Herri Administrazioek Ondare Erantzukizunaren inguruan gauzatzen dituzten prozeduren araudia onesten duen martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretua.*